

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresek oso zaila izaten dute arrakasta beraien kabuz izateko, eta beste erakunde, enpresa edota pertsona batzuekin batu ohi dira. Gure kasuan, pertsona edota enpresa ugarirekin aliantzak egingo ditugu.

Hasteko, INDITEX eta Adidas, Nike eta Pumarekin aliantza bat sortu beharko dugu. Beraien marketan gure aplikazioa txertatuko dugula jakinaraziko diegu eta horretarako beraiekin akordio batzuetara iritsiko gara, oso onuragarria baita haien salmentak handitu ahal izateko eta zenbait produktu errazago saltzeko.

INDITEX



iOS eta Android sistema operatiboko kide batzuekin kontaktuan jartzea erabaki dugu, haiek ahalbidetzen baitute geure aplikazioa haien sistemetan onartua egotea. Modu berean, App Store eta Play Storekin ere elkartu gara, bertan geure aplikazioa salgai egotea nahi dugulako, eta haiek prozesu honetan baimena eman behar ziguten.

Halaber, Trynowren segurtasuna bermatu ahal izateko, Xabi Gonzalez, Mirenen lehengusua, hau da, pertsona ezaguna eta fidatzeko modukoa, informatikoaren harremanetan jarri gara birusak saihesten eta arazo informatikoak konpontzen oso trebea baita. Berekin hitz egin eta gero, oso ideia berritzailea eta ona iruditu zaionez, geure proiektura batzea erabaki du eta orain geure Madrileko egoitzan lan egiten duen kide bat gehiago da. Gainera, Xabi Madrilgoa denez, lokala bilatzearen arduraduna izan da eta oso prezio merke batean aurkitu du bere kontaktuei esker.

“21 Buttons”, “Depop” eta “Vinted” aplikazioekin ere harremanetan jartzea erabaki dugu. Haiek esperientzia ugari dute modaren munduan dagoeneko, urte asko daramatzate aplikazio horiek martxan, eta jende askorentzat oso baliagarriak direnez, haien aplikazioetan Trynow iragartzea oso onuragarria izango da guretzako. Horretarako, hainbat akordio egitea erabaki dugu eta laguntza eskaintzeko prest daude. Akordioa beste aplikazioaren publizitatea gure aplikazioan eta alderantziz agertzea izango litzateke, 3 aldiz egunean zehar.



Bestalde, modaren alorrean aritzen diren influencer batzuekin elkartuko gara, gehienek helburu bat baitute, modaren munduan ospetsu egitea, eta pentsatzen dugu gure proiektua oso aproposa zaiela. Aliantza hau izango da garrantzitsuenetarikoa, pertsona hauek izango direlako gure aplikazioa ezagutzera eramango dutenak. Hain zuzen ere, Manu Ríos, Aida Domenech -edota jendeak ezagutzen duen bezala, "Dulceida"-, Ion Kortajarena, Sara Baceiredo eta Maria Pombo izango dira Trynowren berri emateaz arduratuko direnak. Oso ideia berritzaile eta efikaza iruditu zaie eta asko pozten dira gu laguntzeaz; horregaitik, ondo doakigula ikusten badugu, pertsona gehiagorekin jarriko gara harremanetan.



Aipatzekoa da gure aplikazioaren eskubideak eskuratu ahal izateko, hau da, patentea, ez dugula beharrik izango erakunde berriekin aliantzarik egiteko, izan ere, Aneren aita abokatua da eta kontu legal guzti horien arduraduna izango da.

Gainera, gure proiektua aurrera ateratzeko, Maddon publizitate enpresarekin jarriko gara harremanetan kartelak egiteko. Egia da enpresa hau Donostian kokatuta dagoela eta gure egoitza Madrilen dagoela. Dena den, enpresa horrekin harremanetan egotea erabaki dugu, Noraren bizilagunak bertan lan egiten baitu, eta laguntza asko edukiko genuke urruti egonda ere. Enpresa honekin kartelak egiten zentratuko gara, eta Espainiako hainbat herrietan jarriko ditugu.



Azkenik, Eitb eta RTVE-rekin ere aliatuko gara, izan ere, gure aplikazioari publizitatea ematea interesatzen zaigu eta ez dago modu hobeagorik telebistan iragartzea baino. Euskal Telebista aukeratuko dugu Euskal Herrian sortu den ideia izan delako eta harro egon behar garelako geure jaioterriaz. RTVE aukeratzearen erabakia, berriz, aplikazioa espainiar estatu osorako egongo delako eskuragarri da, hortaz, oso baliagarria izango da guretzat bertan Trynow iragartzea.

